

Donostian, 2009ko urriaren 8an

Andres Urrutia, euskaltzainburua,
Xabier Kintana, idazkaria,
Jose Luis Lizundia, diruzaina,
Andoni Sagarna, Iker sailburua,
Andres Iñigo, Jagon sailburua,
Adolfo Arejita,
Miren Azkarate,
Patxi Goenaga,
Jean Haritschelhar,
Joseba Lakarra,
Miren Lourdes Oñederra,
Txomin Peillen,
Pello Salaburu,
Ibon Sarasola,
Ana Toledo,
Joan Mari Torrealdai,
Patxi Uribarren,
Xarles Videgain,
Piarres Xarriton eta
Mikel Zalbide euskaltzainak.

Pello Telleria idazkariordea, zegozkion gaitan.

Ezin etorriak eta ahalak: Aurelia Arkotxak, ahala Miren Lourdes Oñe-

derrari; Patxi Salaberrik, ahala A. Iñigori; Bernardo Atxagak, ahala Andres Urrutiari; Jean-Louis Davantek, ahala Txomin Peilleni; Sagrario Alemanek, ahala Andres Iñigori; Patxi Zabaletak, ahala Andres Iñigori.

Batzarra arratsaldeko 16:10ean hasi da Donostian, Gipuzkoako Diputazioaren Jauregiko Batzar-aretoan, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

1. Aurreko akta onartzea. Ez da oharrik jaso eta, beraz, aurreko batzarraren akta ontzat eman da.

2. Hasi aurrekoak. Euskaltzainburuak, gaurko eta biharko ekitaldiarako oharrak egin ditu, ordutegia, aritzeko modua eta antzeko xehetasunak azalduz.

Era berean, J. M. Torrealdairaren sarrera sarrera-hitzaldia Foruan urriaren azken larunbatean izanen dela gogoratu du.

3. Osoko batzarren lan-prozedura berria. Oharrik ez da jaso eta, beraz, aurreko batzarrean Osoko batzarretan lan egiteko Zuzendaritzak aurkeztu zuen proposamena ontzat eman da.

4. Batzorde ahaldunduen informazioa ematea.

4.1. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak. Andoni Sagarnak, pantaila informatikoaz baliatuz, batzordearen osaera gogorarazi du. Burua A. Sagarna; idazkaria X. Kintana; Egitasmoaren zuzendaria (I. Sarasola); hiru euskaltzain oso: A. Arejita, B. Oihartzabal eta P. Salaberri; Hiztegi Batuko lantaldearen idazkaria (J. A. Aduriz). Horiez gainera, *Hitzerean*-en partaide bat ere bileretara joaten da.

Elkarrekin lan egiteko eta joan-etorriak ekiditeko, bideo-hitzaldiez baliatzea erabaki zen, biltokiak Bilboko egoitza, eta Donostia eta Iruñeko ordezkariak izanik. Bilerak hilean bi aldiz egitea erabaki zen, hilaren lehen astelehenean eta 15etik aurrerako lehen astelehenean, goizeko 10etatik eguerdiko 14etara arteko ordutegiaz.

Lehenbiziko bilera ekainaren 23an izan zen, eta ordutik aurrera, abuztuko oporren salbuespenaz, aurretik pentsatu bezala egin dira. Bileren martxa, ibilian jartzeko ohitura hartu arte, hasieran uste baino astiroago bazihoan ere, une honetan gero eta azkarragoa doala esan daiteke.

4.2. Hiztegi Batua. Bigarren itzulia

Era berean, Hiztegi Batuaren 2. itzulia burutzeko eratu den batzorde ahaldunduen osaera, lan egiteko aurretik pentsaturiko kronograma eta orain arteko bileren berri eman du A. Sagarna batzordeburuak. Osakideak honako hauek dira: Burua A. Sagarna; Idazkaria X. Kintana; Euskaltzain osoak: M. Azkarate, P. Salaburu, P. Urribarren; Hiztegi Batuko lantaldearen idazkaria (J. A. Aduriz).

Lehenbiziko bilera uztailearen 8an izan zen. Honetan ere, hasierako ibilera nahi baino motelagoa arren, denbora aurrera joan ahala, aurreikusirik eritmorik hurbiltzen ari da.

5. Frisieraren Akademiako ordezkarien agurra. *Fryske Akademy* deritzon Frisieraren Akademiaren Burua den Renier Salverda jauna eta erakunde bereko zuzendarietako bat, Cor van der Meer jauna, etorri dira batzarrerara, Euskaltzaindiak gonbidaturik. Reinier Salverda 20 minutuz mintzatu da frantsesez frisieraren egoera eta horren Akademiaren ezaugarri eta zeregin nagusiak azaltzeko. Ondoren, euskaltzainek egindako galderei erantzun die.

6. Esku artekoak

6.1. Beñat Oihartzabalen eskutitza. Euskaltzainburuak, B. Oihartzabalek bidali dion eskutitza irakurri du. Horretan, osasun arazoak direla eta, medikuaren aholkuz, Euskaltzaindian dauzkan karguak (euskaltzainburuordetza eta Iparraldeko ordezkariaren ardura) uztea erabaki duela jakinarazten du Euskaltzainburuordeak. A. Urrutia bereziki Iparraldeko euskaltzainei mintzatu zaie, bertako euskaltzain gazteenek haren karguak nork eta nola jaso pentsa dezaten. Beraz, Barne Erregelek diotena betez, hurrengo osoko batzarrean hautatuko da buruorde berria.

6.2. Hilberri-txostenak. Oraintsu zendu diren euskaltzain urgazle biren hilberri-txostenak egiteko, Zuzendaritzak honako pertsona hauek proposatu ditu: Roger Idiart-ena Jean-Louis Davantek egitea. Mikel Atxagarena, aldiz, Mari Carmen Garmendiak. Ontzat eman da proposamena.

6.3. Literatura-sariak. Aspaldiko urteotan sariketek izandako bilakaera ikusita, Bilbao Bizkaia Kutxak pertsona nagusientzako orain arte babesten zituen sariak (Txomin Agirre eleberria, Toribio Alzaga teatroa, Felipe Arrese Beitia poesia eta Mikel Zarate saiakera) Kutxa horrek aurtan ez ematea erabaki duela jakinarazi du Euskaltzainburuak.

6.4. Nafarroako Gobernuaren eta Euskaltzaindiaren arteko 2009ko hitzarmena. A. Urrutiak bilduei adierazi dienez, aurtengo irailaren 22an Nafarroako Gobernuak eta Euskaltzaindiak elkarren arteko hitzarmen berria sinatu dute. A. Iñigok, gainera, aurtengoan diru-laguntza 235.000 eurotaraino igo dutela jakinarazi du, lehenagoko 160.000 euroen ordez.

6.5. Banatzeko liburuak. Ohi bezala, Euskaltzaindiak bere argitalpenetatik euskaltzainen artean banandu ohi dituen liburuak, baina gaurko batzarrean ez dira banatuko, urrian 30ean baizik.

Batzarra arratsaldeko 18,15etan amaitu da.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria